

Maider Arregi Markuleta
Mijo Lizarzaburu Garcia
Lore Lujanbio Etxeberria

Gizabere kuirrak: Azurmendi eta euskal transfeminismoa

Joxe Azurmendi ezinbesteko erreferentea da euskal pentsamendu garaikidea ulertzeko, nahiz eta gure hezkuntza ibilbidean haren izena apenas agertu den. Filosofiaren kanonak, historikoki, gizonezko zuri europarrak lehenetsi ditu (ingelesak, frantsesak, alemanak), eta horrek isiltasun estrukturala eragin du nazio hegemonikoetatik kanpo garatutako pentsamendu filosofikoa irakasteko orduan. Horren ondorioz, eta euskal gatazka tarteko, gure belaunaldiak hutsune nabarmena jaso du, euskal pentsalarien ekarpenak ikasterakoan.

Unibertsitateko giroan izan genuen lehenengoz Azurmendiren berri, zuzenean ezagutu ez arren, haren lanak fakultateko kideengan utzitako aztarnari esker. Lehen begiratuan, Arantzazu bueltan garatutako apai-zen nazionalismoaren ordezkarietat hartu bagenuen ere, haren lanaren azterketa landuagoak aurreiritziak hautsi eta, XX. mendeko Euskal Herria ulertzeko ez ezik, XXI. mendeko erronka politiko eta kulturalak pentsatzeko funtsezko ekarpenak egiten dituela erakutsi zigun.

Azurmendiren testuak Wittig, Foucault, Davis, Butler eta Haraway bezalako egileekin batera irakurri genituen, eta loturak ikusten genituen; inperialismo kapitalista, erregimen heterosexuala eta nazio zapalkuntza modernitatearen proiektu uniformizatzailean bateratzen baitziren.

Filosofo modernoek, arrazoimenean eta unibertsaltasunean oinarrituta, ezagutza objektiboaren eta egia absolutuaren defentsa egin zuten, subjektu esentziala eta unibertsala irudikatzen duen ontologia eratuz. Baina Descartes, Kant eta Hegelen subjektu idealistaren eta ahalguztidunaren aurrean, Azurmendik azaldu zigun 'gizabereak' garela, besteen beharra eta kooperazioa ezinbesteko dituzten izaki material eta erlazionalak.

Modernitatearekin batera sortu ziren baita Europako nazio-estatuak ere. Azurmendirekin ulertu genuen nazio-identitate guztiak direla

‘etnikoak’, hau da, partikularrak. Nazio-identitate hegemonikoa hedatzen duten estatu uniformizatzaileek (espainolak eta frantsesak, kasu) prozesu hori estaltzeko falaziak sortu zituzten, nazio-identitatea unibertsalizatuz eta esentzializatuz.

Pentsamendu modernoaren aurka, euskal feminista materialistok argi dugu ezagutza eta identitate guztiak kokatuak direla. Alegia, materialak, gorpuztuak eta lurraldetuak, subjektu unibertsalak subjektu hegemonikoa ezkututzen baitu. Europako modernitatean gailendutako pentsamendua erregimen heterosexual, kolonialista eta kapitalistaren parte da eta, beraz, sexua, arraza edota nazioa naturalizatu eta gizon zuri burges eta europarren gobernua egituratzeko balio du.

Esentzialismoak gauzak aldaezinak direlako falazia sostengatzen du. Aldiz, bai generoa, bai euskalduntasuna materialismotik irakurtzen baditugu, injustiziak aldatzeko marko ontologikoa izango dugu gure eskuetan. Euskalduntasuna, generoa bezala, aldakorra delako, menderakuntza erlazio materialen bitartez produzitua.

Txirritaren bertsoak bezain euskal kultura dira Altxalili, Maruxak, La-bar eta eRRe; eta hori onartzen ez duten diskurtsoek euskal kultura kondenatuko dute koadroetan enmarkatuko den baina inor gutxi erabiliko duen apaingarri kostunbrista izatera. Aldi berean, ez dugu bat egiten genero disidentzien ulerkerarekin unibertsalistekin, gure disidentziak Euskal Herriko testuinguru politikoan kokatzen ditugulako eta testuinguru horri erantzunez baino ez direlako bizi.

Euskaldun kuirron izaera politikoa modernitatearen prozesu hegemonizatzailearen kontrako norabidean doa, eta biak hautsi nahi ditugu: bai gizonak eta emakumeak ekoizten dituen erregimen heterosexuala, bai estaturik gabeko nazio txikiak azpiratzen dituen unibertsalismo liberala. Horregatik, gure helburua ez da nazio kuir globala, Euskal Herri transfeminista baizik.

Azurmendik tresnak eman zizkigun modernitatearen prozesu hegemonizatzaileari kritika egiteko. Euskal Herriko filosofiak kokatua izan behar duela erakutsi zigun. Teoria kuirra, dekoloniala, marxista eta horren guztiaren irakurketa materialista behar ditu euskal pentsamenduak, Azurmendiren ur-jauziak korrante iraultzailea elikatzen jarrai dezan.